

10/

CAMINOS DE
HOSPITALIDAD

HOSPITALIDAD.ES

11

NIRE BIDEA BATZEN DUT. HOSPITALITATEAREKIN BAT EGITEN DUT

bideak.hospitalidad.es

Migrazioaz hitz egitea geure historiaz eta geure orainaz hitz egitea da. Gure bizitzaren iragana, oraina eta etorkizuna ulertzeko, beharrezkoa da pertsonen mugikortasuna gizateriaren funtsezko ardatz bezala hartzea.

Gaur egungo testuingurua COVID-19ak eragindako tentsio sozialek eta politikoez ez ezik, neurri handiagoan talde ahulenei eragiten dieten egiturazko beste krisi batzuek ere osatzen dute, eta behartutako desplazamendua nabarmen handituko dela iragartzen du, herrialdeen barnean nahiz nazioartean, epe labur eta ertainean. Testuinguru horrek, azken urteetan migrazioak izan duen goranzko joerari gehituz, giza eskubideen urraketa handiagoa eragiteaz gain, desberdintasuna areagotzen du toki eta mundu mailan.

Gure ingurunean ikusi berri dugu zenbat jende iritsi den Kanariar Uharteetara eta Ceutara, bizimodu berri bat nahi izateko beren bizitza arriskuan jarriaz eta batzuetan galduaz.

2020ko erdi aldeko azken datuen arabera, munduko biztanleen %3,6 (280.6 milioi) jaioterria ez den beste herrialde batean bizi da, eta horietatik 79,5 milioik (munduko biztanleriaren %1 inguru) beren herrialdea uztera behartuta ikusi dute beren burua, eta gehienek (%73) jatorrikoaren alboko herrialdeetara jo dute. Datu kezagarriak dira gatazka, indarkeria eta eskubideen urraketa testuinguruetatik ihes egiteko arrazoen aldetik, baina "inmigrazio masiboaren" pertzepzioa desmuntatzen dute; izan ere, hori batez ere Ipar Globalak eraikitzen du modu kezagarriari agertzen diren beldur eta gorroto diskurtsoen bidez, eta horrek erakusten du gizarte hori arrazismoak ez ezik, klasismoak eta aporofobiak ere bereizten dutela.

Zergatik hitz egiten dugu Hospitalitateaz eta inklusioaz?

Abegikortasuna bizikidetza bezala onartzen dugu eskubideetan berdinak diren eta haien arteko desberdintasunak errespetatzen dituzten pertsonen arteko gizarte komun baten barruan. Abegikortasuna beharrezkoa da migrazio-prozesu osoan zehar -jatorria, igarotzea, helmuga-, giza eskubideak etengabe urratzen baitira eta testuinguru eta kolektibo zaurgarrietan modu berezian eragiten baitute. Ihesaldia eragiten duten arrazoiek, igarotzean aurkitzen dituzten oztopoek edo helmuga-herrialdean aurre egin beharreko baldintzek babesgabetasun- eta diskriminazio-egoeran eta eskubideen etengabeko urraketa-egoeran jartzen dituzte migratzaileak.

Bereziki aipatzea merezi du, alde batetik, emakume eta haur migratzaile askoren errealitateak, genero-desberdintasuna medio neurri handiagoan kaltetzen baitituzte eskubideen urraketek, haien migrazio-egoera dela-eta makina bat indarkeria eta diskriminazioei aurre egin behar izaten baitie emakumea izateagatik soilik. Et, bestetik, familiarik gabe eta muturreko zaurgarritasun egoeretan migratzen duten haurren eta nerabeen errealitatea aipatu behar da, jatorri bidezko aurreiritzi eta diskriminazioari aurre egin behar izateagatik, adingabearen interes gorena lehenetsi gabe.

Errealitate horrekin batera, mundu mailan areagotu egiten dira mugak kanporatzeko politikak eta migrazioaren eta migratzaileen eskubideak defendatzen dituzten pertsonen aurkako gorroto-, beldur- eta kriminalizazio-diskurtsoak bultzatzen dituzten korronteak ugartu.

Errealitate horren aurrean ez dugu etsitzen. Hori dela-eta, Jesusen Lagundiaren Gizarte Sektoreko erakundeok bat egiten dugu **Hospitalitatearen** eta Inklusioaren aldeko Itun honekin. Premiazkoa da erantzun integral bat ematea, fase guztietan migrazio segurua izateko eskubidea defendatuko duena eta diskurtso, balio eta bizikidetzako modu berriak eraikiko dituen, giza familia eta gizarte berri bat eraikitze bidea egin ahal izateko.



10/

-

11

#NireBideaBatzenDut

ARGAZKIA © SERGI CÁMARA